

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/11/16 | 373

🌀	Jon Azpiroz eta Ibon Artola
🌀	Irura eta Anoeta, lan munduan euskaraz aurrera
🌀	Krisia? <i>Very much indeed!</i>
🌀	Aholkularitza Sexologikoko Zerbitzua
🌀	Anoetako Dantza Taldea izen eta logo bila



Ameriketatik...



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Galtzaundi
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOIUK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 4.500 ale
 Lege gordailua: SS-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



Erreportaia: Sointek, Tolosan sortutako produktora

Badira 12 urte Sonia Ezkerrak eta Jose Mari Gorostegik, Tomson-ek, Sointek produktora Tolosan sortu zutela. Euren egitekoa haurrei zuzendurik dago; clown eta marrazki bizidunen kutxuko ikuskizunak eskainiz. Azaroaren 17 eta 18an Anoetako Kultur eta Kirol Astearen baitan Kiliklon Jaialdia ospatuko dute.

8-10. orrialdeak

Mikel Labaien (Berastegi) eta Naiara Aginako (Gasteiz) zortzi hilabetez Hego Ameriketatik bizikletaz bidaiatzen aritu ostean Euskal Herrira iritsi berri dira. Ingeniari bikote honek eszedentzia eskatu eta bestelako esperientzia bizitzeari ekin dio 2012. urtean.

Elkarrizketa: Mikel Labaien eta Naiara Aginako 14-17 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Jon Azpiroz eta Ibon Artola	4-5
	Normalizazioa: Irura eta Anoeta, lan munduan euskaraz aurrera	6
	Ikasleen txokoa: Krisia? <i>Very much indeed!</i>	11
	Eskualdeko albisteak: Aholkularitza Sexologikoko Zerbitzua	12-13
	Kultura: Anoetako Dantza Taldea izen eta logo bila	18-19

SUPER EKO *Oinezkoen eremua Erosketak etxera eramateko zerbitzua*

SUPERMERKATUA

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

1.000 modelotik gora

2 betaurreko konpartitzeko

97€ kristalekin

konbinatu mō

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS lehenaz zerbitzu optikoetan

Gaur egungo garaiak...



Jon Azpiroz
Bedaioko Artubi Elkarteko kidea

Oraingo garai honek, inoiz ez bezalako gogortasuna daukala diote, oso gazte nintzen baina 1982-85 garaiak ere ez ziren makalak izan, ezta? Droga, borroka armatua, langabezia oraingoaren bikoitza zen. Baina orduan beste espiritu bat zegoen, kalera irten, lan gogorak egiten ziren, aktiboagoa zen jendea. Gauzak lortzeko grina nabari zen, ongizatea lortu nahi zen.

Krisia, langabezia, etxe-kalera-
ratzeak, diru falta, euro gataz-
kak, ustelkeriak, bankuetako
kontseilarien pentsioak... Az-
ken urtean egunkariak eta te-
lelibistako notiziak entzuteak ez
du gorputza pizten, animatzen.
Baina hemendik animo guztiei,
hel gaitezen bizia ematen digun
horri. Familia, lagunak, auzoa.
Manten gaitezen bizirik, aktibo
eta ez gaitezen depresioan sar.

Mila gauza ditugu aurrera egi-
tako, bakoitzak gure esparruan.
Ez al da egia gaurko egunean
denetik daukagula? Azaletik
bizi garela, itxurakerian bizi
izan garela? Atzo grazia egin zi-
dan txiste bat ikusi nuen. Ume
batek beste bati zera adieraz-
ten dio: "Wii, psp, ipod, ipad,
tablet, etab. ditut, zerbait falta
al zait? "Besteak erantzun: "zuk
ez dakit, gurasoek belarrondo-

ko bat". Txisteak grazia egin bai
eta hausnarketarako ere ema-
ten du, ezta? Lehen gurasoek
parkera, mendira, hondartzara
eramaten gintuzten, gaur? Ak-
tiboak izan behar dugu eta ez
soilik ordenagailu aurrean. Ak-
tiboak eta positiboak eta badi-
ra milaka gauza inguruan. Gure
herrian parte-hartzea, giza
taldeetan parte-hartzea. Erron-
ka pila daude bihar bertan eta
batzuen eskuetan ezin direnak
utzi, gizartearen eskaerei gaizki
eta berandu erantzuten dioten
batzuen eskuetan behintzat.

Bakarrik garela gutxi aldera
daiteke, baina inurriek bezala
lanean ikaragarritzko eraldaketa
sor daiteke. Interes pertsonalak
albora utzirik pertsonetan, au-
zoan, gizartearen sinesten denok
batera lan politak egin ditzake-
gu.

Hurrengo urtean Kilome-
troak dugu Tolosako herrian.
Duela hamabost urte antola-
kuntza polita sumatu nuen, or-
dutik ona zenbat gauza aldatu
eta eraldatu diren, ditugun eh?
Hortxe dugu ekonomiaz pixka
batean ahaztu eta gure ume
eta gazteen heziketaren par-
te garrantzitsu baten alde lan
egiteko, gure izaeraren parte
baten alde lan egiteko, euska-
ra gure inguruan eta etorkizu-
nean mantentzearen alde lan
egiteko. Denen artean pixka-
naka-pixkanaka gure denboran
parte bat trukatu. Duela
hamabost urte bezala lan egi-
nez izan dadila berriz Tolosa
mundiala. Ez al da erronka po-
lita? Osa dezagun Kilometroen
sarea eta har dezagun parte,
gaurtik hasita proiektua amaitu
arte. Ez zaitze damu. ☺

Ekintza sindikalaren batasuna posible eta beharrezkoa da

Modu garbi eta egokian
defendatu zuen jarrera hau
Nafarroako LABeko idazka-
ri nagusia den Igor Arroyok
irailaren 26ko greba orokorra
baino egun batzuk lehenago,
Nafarroako ELA eta LAB sin-
dikatuak, ekintza batasuna
defendatuz, UGT eta CCOOri
greban parte hartzeko deia
egin zietenean. Igor Arroyo-
ren arabera "deseagarria" eta
"jendeak eskatzen zuena"
martxoaren 29ko grebaren
(ELA, LAB, UGT eta CCOO
egun berean deitutakoa) an-
tzeko argazkia zen. Bere ustez
horrela "erantzun orokorreko
eguna lortzen da, bakoitza
bere diskurtso propioarekin
eta bere estrategia propioare-
kin". Erabat ados hitz hauekin.

Eta bai, martxoaren 29ko
greba izan behar da jarraitu
beharreko bidea. Greba hura
arrakastatsua izan zen, az-
ken urteetako handiena Eus-
kal Herrian. ELA, LAB, CCOO
eta UGTk egun berean deitu
izana izan zen gakoa. Horre-
gatik, akatsa izan zen UGT
eta CCOOeko zuzendaritzek
irailaren 26ko greba orokorra
ez babestea. Eta aldi berean,
akatsa izan zen ELA eta LABek
azaroaren 14ko greba oroko-
rra ez babestea, eta are akats
handiagoa Europa mailako
borroka eguna zela kontuan
hartuta.

Sindikatuak ez diote beldu-
rrikeria izan behar ekintza batasu-
nari, honen alde egin behar
dute borroka, eta ez bultzatu
sektarismoa edo langile kla-
searen zatiketara sor dezakeen
inolako jarrerarik. Ekintza ba-
tasunak ez du esan nahi indar



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

Burgesia langile mugimenduaren aurka
elkartuta baldin badago, langileok ere
beharrezkoa dugu gure indarrak elkartzea.
Hori dela eta, ekintza sindikalaren batasuna
funtsezkoa da; langileen zatiketak bankariei
eta enpresari handiei bakarrik egiten die
mesede.

sindikal batek egokiagoak
ikusten dituen bere posizioak
defendatzeari utzi behar dio-
nik. Guztiz kontrakoa. Bata-
suna etsai komunaren aur-
kako borrokan eta erabateko
askatasuna propagandan,
proposamenetan eta alterna-
tiban. Eta sindikatu batek
greba orokorra bezalako mo-
bilizazio eraginkor eta garran-
tzitsu bat deitzen duenean,
honakoa galdetu behar diote
gainontzeko sindikatuak be-
ren buruari: zer irabazten eta
zer galtzen dute langileek
greba orokor horretan parte
hartuta?

Orain arte izan ditugun eta
hemendik aurrera izango di-
tugun erasoak atzera botatze-
ko modu bakarra langile kla-
searen mobilizazio bateratu

eta eraginkorrek dira. Ez dela
posible ELA, LAB, CCOO eta
UGTren indarrak elkartzea?
Desberdintasun handiegiak
dituztela beren politika sin-
dikalean? Hau egia bada,
nola da posible orduan urte
honetan bertan (aurrekoetan
ere gertatu da etengabe)
ekintza sindikalaren batasu-
na behin baino gehiagotan
ikustea Euskal Herrian? Pasa-
den kurtsoko Nafarroako adi-
bidea garrantzitsua da. Greba
orokorra izan ziren hezkun-
tza komunitate hau osatzen
duten sektore guztien parte
hartzearekin. Manifestazio
masiboak, ikastetxeen oku-
pazioak eta batzar parte har-
tzailerak izan ziren. Zeri esker?
ELA, LAB, CCOO eta UGTk
borroka batera bultzatzeari

esker besteak beste. Maia-
tzaren 22ko hezkuntzako
greba batera antolatu zuten
(estatuan ere izan zen egun
berean). Bestalde, fabriketa-
ko gatazketan edo hitzarmen
kolektiboetan ere, modu
egokian, lau sindikatu hauek
sarritan elkartu dituzte beren
indarrak.

Euskal burgesiak ez du
dudarik egin gobernu espai-
niarrarekin eta Europako Ba-
tasunarekin, burgesia espai-
niarrarekin eta europarrarekin
aliatzeko. Burgesia, ezberdin-
tasun nazionalen gainetik,
modu bateratuan ekiten ari
da langile klasearen aurka.
Bankariak eta enpresari han-
diak elkartuta badaude, lan-
gileok ere beharrezkoa dugu
elkartzea. ☺



Irura eta Anoeta, lan munduan euskaraz aurrera

Iragan uztailean aurkeztu bezala, Galtzaundi Euskara Taldeak Irurako eta Anoetako udalekin batera, "Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa: Irura eta Anoeta" landu du azken hilabeteotan.

Erredakzioa

baino kualitatiboki eragitea" izan da. Gauzak honela, Tolosaldeko euskara taldearen lana jada aurreko urtetan konpromisoak hartuak zituzten enpresetara joan eta normalizazioaren bidean pauso berriak sustatzea izan da.

Horretarako, hiru arlo landu dira bai Anoetan eta baita Iruran ere: hizkuntza paisaia, hitz teknikoaren erabilera eta barne eta kanpo harremanak. Enpresei, lehenik informazio gutuna bidali, ondoren bilerak adostu eta azkenik lanketa bideak eskaini zaizkie. Enpresetara egindako bisitetan, datuak jasotzeaz gain, hizkuntza paisaian eragiteko bitartekoak aurkeztu,

hitz teknikoaren euskarazko hiztegiaren -Euskalterm- berri eman eta oinarritzko hitz batzuk erabiltzen hasteko saiakera egin du Galtzaundik. Halaber, bezeroekin harremana duten langileen hizkuntza gaitasuna aztertu du euskara taldeak.

Euskarazko kalitate ziurtagirikiko interesa azaldu duten enpresei, berriz, aipatu ziurtagiriak lortzeko bidea azaldu eta ziurtagiriak ematen dituzten entitateetako ordezkariekin bilkura antolatu die Galtzaundik.

Anoetaren kasuan, zazpi izan dira aipatu egitasmoan parte hartzeko pausoa eman duten enpresak: Ibarra Autoen Hornikuntza, Mapi Grabatuak, Anoeta Karrozeria, Opel Giauto, Goya Harakintza eta Zuriarrain Iturgintza. Hauetaz gain, Autoberrri Tailerrak (Renault) Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko bidean hasi da.

Bestalde, Iruran, beste zazpi enpresa jardun dira euskara lan-munduan hedatzeko lanean: Vicente Errotuloak, Tolosa Marmolak, Mikelan, Ipar Auto Tailerrak, Baso-Lur, Alonso Burdin eta Metalak eta San Miguel Garraioak 1961.

Aipatu enpresa hauek hartutako erabaki zehatzen artean, besteak beste, ondorengoak zerrendatu daitezke: ageriko idazkiak eta oharrak, ordainagiriak eta bisita txartelak euskaraz jartzea; telefonoz lehen hitz euskaraz egitea; aurrez aurre lehen hitza euskaraz egitea; webgunean euskaraz nabigatzeko bitartekoak burutzea eta webgunea euskaraz jartzea; telefono erantzugailua euskaraz jartzea; enpresako ibilgailuaren errotulazioan euskarak bere presentzia izatea; administrazioa daramatenekiko idatzizko harremana euskaraz gauzatu ahal izateko eskaera egitea...

Jaso bezala, 2012. urtean egitasmo honen baitan ezarritako helburuak zehatzagoak, motibagarriagoak eta egingarriagoak suertatu dira, teknikarien esanetan, "eraginkortasuna areagotuz eta emaitza hobekitzeko". Azken finean, honako egitasmoaren bitartez, "kontzientziario eta sentibiltasun lana" egitea dagokio Galtzaundiri; erantzuna ordea, enpresen esku dago. 2012. urtean erantzun oparora jaso du euskara taldeak Anoeta eta Irurako enpresen eskutik.



Ekimena 2008an martxan jarri bazen ere, 2012. urteko xede nagusia, Galtzaundi Euskara Taldeko eta Anoetako zein Irurako euskara teknikariaren adostasunez, "kuantitatiboki

ren bilerak adostu eta azkenik lanketa bideak eskaini zaizkie. Enpresetara egindako bisitetan, datuak jasotzeaz gain, hizkuntza paisaian eragiteko bitartekoak aurkeztu,

KILOMETROAK 2013 TOLOSA HEMEN DA!
AURKEZPEN EKITALDIA
AZAROAK 23 OSTIRALA
TOLOSAN, LEIDOR ARETOAN
18:00ETAN ETA 20:00ETAN

SALMENTA PUNTUAK: IKASTOLA - ORBELA - IKATZA - LEIDOR 2€

Partekatu: Pasaban, Tolosako Udala, Laskorain Baxtola

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

Mahala

Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

CDI Informatika

Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

IGO

Karga eta goi lanetarako grua

www.igogrua.com
Mobil zkia. 670 67 24 62

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

R A K U

Arostegieta kalea, 2 - Tolosa



Sointek Tolosan sortutako produktora

8

Badira 12 urte Sonia Ezkerrak eta Jose Mari Gorostegik, *Tomson*-ek, *Sointek* produktora Tolosan sortu zutela. Euren egitekoa haurrei zuzendurik dago; *clown* eta marrazki bizidunen kutxuko ikuskizunak eskainiz. Azaroaren 17 eta 18an Anoetako Kultur eta Kirol Astearen baitan *Kiliklon Jaialdia* ospatuko dute.

Naiara Roldán de Aránguiz

Sointek-ek garatu zuen lehen produktua *Xurdir* izenekoa izan zen, 2000. urtean. Sonia Ezkerrak, produktorako arduradunak, adierazi bezala, "denbora gehien daramana eta irauengo duena da". Bi urtez behin gainera, istorio berriak kaleratzen dituzte eta aurten ere Durangoko Azokan horretan jardungo dira. *Euskaraokea*, *Miru Antzinako Sorgina* eta *Kiliklonen diska berria* aurkeztuko dituzte aurtengoan Durangoko Landako Gunean.

Sonia Ezkerrak argi dauka aurrerantzean ere euren pro-

duktuak haurrei zuzendurik egongo direla: "espezialistak gara eta horretan jarraituko dugu. Esker onekoak dira bai haurrak eta baita gurasoak ere".

Sointek-ek sortutako produktuen berezitasuna musikan kokatu beharra dagoela dio Sonia Ezkerrak. *Sointek*-en bueltan bilduriko profesionalak musikariak dira eta horrek nahia nahiez produktuetan bere eragina dauka. Adibide bat baino ez dira *Kortxea* *Doktorearen Abenturak*, euren *Musika Tresnen Fabrika*-rekin. *Soniak* azaltzen duen bezala, ikuskizun gehienak musikalak dira, musikaz kontatzea atsegin dutela dio gainera: "testu hutsezko momentuak ez zaizkie haurrei gehiegi gustatzen, luzeegiak badira aspertu egiten dira".

Ikuskizunak 2 urteko haurretatik hasi eta "lotsa sartzen zaïen artekoak", kausan kasu 9-12 urte artekoak, zuzendurik daudela dio *Sointek*-eko arduradunak. Ikuskizun guztiak euskaraz sortuak eta garatuak

izan arren, guraso erdaldunek jarraitzeko arazo berezirik ez dutela izaten argudiatu du Sonia Ezkerrak. Euren ikuskizunetan ikuslegoaren parte hartzea bultzatzea gustuko izaten dute; ez soilik haurrena, baita gurasoena ere: "normalean aitak, gizonezkoak, izaten dira taula gainera ateratzen direnak; amak, emakumezkoak, ateratzea oso zaila suertatu izaten da".

Gurasoen parte hartzea positibotzat ikusten du Sonia Ezkerrak: "guri asko gustatzen zaigu gurasoek seme-alabekin parte hartzea. Gure jaialdietara etorri eta besoak gurutzatuta ez egoteko eskatzen diegu; bertan geldituz gero jolasteko izan behar da; eskulanetan lagundu ahal diete seme-alabei, herri-kiroletan euren kontra aritu daitezke...".

Tankera honetako hartu-emanak seme-alaben eta gurasoen arteko harremanetarako positibotzat ikusten ditu *Sointek*-eko arduradunak; euren egune-

rokotasunerako ideiak ateratzeko baliagarriak ere izan daitezkeelarik.

Ikuskizunetako gidoi eta musikaren sorkuntza normalean Jose Mari Gorostegiri, *Tomson*-eri, dagokio. Ondoren, lan-talde osoaren laguntzaz osatu eta borobildu egiten da. Hala ere, *Sointek* produktorearen eskaintza, ez da bakarrik antzerki, ipuin-kontalari eta *clown* ikuskizunetara mugatzen. Eskaintza zabalagoa ere aurkezteko gaitasuna du Tolosako enpresa honek, krisi garaian zein bezero ezberdinari egokituz. Eskaintza osatuagoa plazaratuz egun erdi eta egun osoko programak aurkeztu izaten dituzte, *Soniak* aipatu bezala, "erreminta ezberdinak erabiliz". Egoera honetatik sortu da *Kiliklon jaialdia*. "Guk menu bat aurkezten dugu, osagai ezberdinekin -puzgarriak, tailerrak, ikuskizunak, ludoteka, herri-kirolak, euskaraokea, ipuin-kontalariak...- eta bakoitzak menua bere erara hartzeko aukera dauka".



Anoetako Kultur eta Kirol Astearen baitan gainera...

Honetaz gain, Anoetako Udalak azaroaren 7an abiatuta, Kultur eta Kirol Asterako egitarau zabala prestatu du.

Azaroak 16, ostirala

Nasrudin eta bere astoa. Ipuin kontaketa euskaraz eta arabieraz. LH1 eta LH5 urte bitarteko haur eta gurasoei zuzenduta. Baraka taldearen eskutik. Udal Areto Nagusia. 18.00

Euskal Jaiaren bideoaren proiektzioa

SUA filmaren proiektzioa, egileen parte hartzearekin. 21.30

Azaroak 17, larunbata

Herri Krosa. DBH3tik aurrerako gazte eta helduentzat. Anoetako plazatik. 11.30

Bertso bazkaria. Amaia Agirre, Ander Lizarralde eta Iban Urdangarin. Kuku elkarte. 14.00

Gaztaina jatea. Gazte Asanbladaren eskutik. Plaza. 19.30

Kiliklon Jaialdia Anoetan

Aipatu menu horretaz, Kiliklon Jaialdiaz, Anoetan, datorren azaroaren 17 eta 18an herriko pilotalekuan gozatzeko aukera izango dute Tolosaldeko haur eta gurasoek. Anoetako Kultur eta Kirol Astearen baitan antolatuta jaialdi hau bi egun osoz zabalik egongo bada ere, publikoak sarrera ezberdinak eskuratzeko aukera izango du. Egun erdiko sarrerak 6 euroko kostua izango du, egun osokoak 10 eurokoa eta bi egunekoak ordea, 18 euroko balioa izango du. Sarrerak Anoetako pilotalekuan bertan eskuratu ahal izango dira jaialdia ospatzen den egunetan. Jaialdiari amaiera emateko txokolatada handi bat antolatu dutela aurreratu du Sonia Ezkerrak.

Kiliklon Jaialdi honek (www.kiliklon.com) bere

aurrekariak izan baditu eta inguruan ospatutako azkena, Andoaineko Kilometroak 2012 festaren baitan gauzatuak izan da. Sointek jaialdiaz disfrutatzen aukera izan dute aurtengo Gipuzkoako Ikastolen Festako Sorabilla gunean bilduriko haurrek. Ideia horri jarraituz gauzatu dute Anoetako Kiliklon Jaialdia, azaroaren 17 eta 18an.

Krisiari aurre eginez

Kiliklon Jaialdia antzerki ikuskizun soiletatik ihes egiten duela argi dauka Sonia Ezkerrak eta baita horrela defendatu ere. Sointek-en bezero nagusiak udalak direla kontuan harturik, eta egungo udalen egoera larria ikusirik, egoerari egokituak produktuak eskaintzen dituen enpresa honek, arduradunaren esanetan. "Garai batean, kultu-

KILIKLON
Azaroaren 16tik 18ra
Anoetako pilotalekuan

Azaroak 16, ostirala
17:00tik - 20:00tara
- Gaztele puzgarriak
- Jolasak
- Haurrentzako Herri Kirolak
- Tailerrak

Azaroak 17, larunbata
12:00tan Euskarakoa
17:30tan Korbza Doktoarearen abenturak (antzerkia animazio)
18:00tik - 14:00tara
17:00tik - 20:00tara
- Gaztele puzgarriak
- Jolasak
- Haurrentzako Herri Kirolak
- Tailerrak

Azaroak 18, igandea
12:00tan Euskarakoa
17:30tan Tatsin Tatsan (antzerki animazioa)
18:00tik - 14:00tara
17:00tik - 20:00tara
- Gaztele puzgarriak
- Jolasak
- Haurrentzako Herri Kirolak
- Tailerrak

Sarrerak:
6 euro (egun erdia)
10 euro (egun osoa)
18 euro (2 egun)

Taberna zerbitzua egongo da

www.kiliklon.com

ra teknikariekin hitz egin eta boxeo partidua izaten genuen, negoziaketak; gaur egun batak besteari penak kontatzen dizkiegu", dio Sonia.

"Euskal Herrian antzoki asko itxi dituzte, eta estatu mailan, zer esanik ez, Euskal Herrian pribilegiatuak ere bagarela esan daiteke", jarraitzen du Sonia. Sointek-en kasuan Bizkaian Gipuzkoan baino askoz gehiago lan egiten duela, airtortzen du berak: "ikusizunak antolatzen diru gehiago dute bertan". Hala ere, Tolosaldeko produktora honen nahia, beste askorena, bezala, azken finean, lana egitea baino ez da.

Publikoa haurrak izanik,

Sointek-en egoera beste bazuena baino hobea ere badela onartzen du Sonia Ezkerrak: "guk oraindik diskoak saltzen ditugu, umeek kopiarik ez dutelako nahi, umei originalak gustatzen zaizkie, liburuxekin, pegatinekin, posterrekin... Norberak bere poltsikoari asko begiratzen dio baina seme-alabei dagokionean gutxiago, errazago gastatzen da, min gutxiago ematen du".

Hori dela eta, Kilikloneko pertsonaien abentura ezberdinez gozatzeko zita izango dute Tolosaldeko haur zein gurasoek datorren azaroaren 17 eta 18an Anoetako pilotalekuan. ©

Krisia? Very much indeed!



Prensa Tailerra
Uzturpe ikastola

"Pataten prezioa igo da!", dio batek; "baita *Chester* paketearena ere", gaineratu du albokoak. Eta desagertzen hasiak dira gurean *Salomon* zapatilak, *Ternua* polarrak, bideojokoak, hilean behin erosten genituen *Cuore* eta Futbolista aldizkariak...

A ze gorakada izan duten bigarren eskuko produktuen web orriak! Bai, krisiak ere kaskarreko latza eman guri ere, 15 urte ditugun ibartarroi alegia. Kontsumitzeko ahalmena, alabaina, ez da gure kezkarik handiena, ezta gutxiagorik ere!

Azken inauterietan inoiz baino lapurreta gehiago izan omen ziren tabernetan eta ziur gaude erne ibili zinetela denok, eskuak patriketan, kartera ondo helduta. Krisiaren beste eraginetako bat ote? Ez edateko, "gorputza zaintzeko"... entzuten dugu

etengabe. Aldi berean, gero eta urriagoak dira aisialdirako aukera "sano"ak. Zinea denoi gustatzen zaigu baina Leidorreko sarrera bi eurotik lura igo da. Urbilera joaterik? Ezta pentsatu ere, aberatsentzako pribilegioa baino ez baita hura. Gure asteko pagarekin -10 euroren bueltanek ez ordainduko dugu sarrera gehi autobusaren 13 euroren kostea. "Pelikulak deskargatzeko" botako digu zuetako batek. Baina hori ere bukatu da, itzela izan baita *Megaupload* eta, orohar, "pirateo"aren kontrako

azken abordaia.

"Ez apalankatu etxean eta segi polikiroldegira, kirola egin ezak/n!" Larri, urteko kuota ere biziki igo da eta. "Futbol partida duzula Beasainen? Joan zaitez trenetara ala autobusez", esaten digute orain gurasoek. Ez da harriztekoa, asegaizak baitira euren autoen deposituak. Eta baliteke hura futbola ikusteko aukera bakarretakoa, ordainketako telebista kanal espezializatuak aspaldi ez baititugu sintonizatzen etxean.

Momentuz gaztetxea doakoa da. Eta Uzturrera igotzeaz asperu bazara dagoeneko, oraindik ez dizute kobratuko San Inazio pipak jateagatik. Ongi etorri!

Inguruko enpresa askok pertsiara itxi du; atzean gelditu dira "modulua bukatu eta lanean berehala hasteko" garai haiek. Lana inoiz lortu zuten gure anai-arreba zaharrenek ederki asko dakite, etxean bueltan baitaude asko. Aita eta ama kezkatuak daude baina, diotenez, gurasoak baina okerrago biziko den lehen belaunaldia omen gara, XX. mendea hiltzear zegoeneko, hain zuzen.

Ez dago esan beharrik bi daiak, oporraldiak, gero eta urriagoak direla, nabarmen. Ez al da hau paradoxa galanta? Izan ere, atzerriera jo beharko dugulakoan gaude gehienok. Lan bila, jakina. Krisiaren alde positiborik? Ingelesa ikasteari inoiz baino logika handiagoa ikusten diogu orain, *very much indeed!* ©

Beti Nahi
gaitzak

Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

IG
GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apata industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85



Tolosako Aholkularitza Sexologikoko Zerbitzua

la gehienen iritziz, Sexologia sexua aztertzen duen zientzia da; eta sexua gure genitalekin egiten duguna da. Sexologia, aldiz, sexuak aztertzen dituen zientzia da. Beraz, emakumeak emakume diren heinean aztertzen ditu, gizonak gizon diren heinean, eta emakumeak eta gizonak sexudunak garenez elkarren artean ditugun harremanak ere (intimoak eta publikoak) kontuan hartzen ditu.

Maider Altuna eta Ana Elozegi

Tolosako Udaleko Aholkularitza Sexologikoko Zerbitzua

Sexologian sexua ez da egiten, eta ez da edukitzen: sexudunak gara. Eta garelako (sexudunak) dauzkagu (ezaugarri sexualak) eta egiten ditugu (jokaera sexualak).

Sexu arteko elkarbizitza hori saihestezina den arren, beti ez da harmoniatsua izaten. Sexologoen harmonia hori sustatzeko lan egiten dugu. Pertsonen arteko harreman intimoekin lotutako gaiak artatu eta ikertzen ditugu. Honakoak dira erreferentziako giltzarriak: gizabanakoa,

bikotea, familia, hezkidetzak, elkarbizitza, sexua, sexualitatea, maitasuna, interakzioa, harremana, intimitatea, konpromisoa, ongizatea, asebetetzea, negoziazioa, aitatasuna eta amatasuna, aniztasuna, plazera, desioa, gorputza eta noski emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna.

Gizonekin, emakumeekin eta horien arteko harremanekin zerikusia duen oro materia sexologikoa da. Ez haien gorputzei eta genitalei gertatzen zaiena bakarrik. Haien biografiei, harremanei, nortasunei,

nahiei... gertatzen zaiena ere materia sexologikoa da, gizon diren heinean, emakume diren heinean eta elkarrekin aniztasunean harremanak dituzten eta elkarren mendeak diren heinean.

Aholkularitzaren oinarrian ongi aholkatzearen artea dago. Aholkuak ematen dira (orientabidea, informazioa, bideak, aukerak, konponbideak...), irtenbidea aurkitzeko (irteerak, moldaketak, hobekuntzak, arrakastak...). Zerbitzua behar duten pertsonak berez gai dira, trebeak dira eta eskumenak dituzte, baina zerbaitekin kateatu egin dira arrazoi bat edo bestea dela eta. Beraz, kontua ez da sendatzea, konpontzea, berrereskuratzea, berreraikitzea. Kasurik txarrean kateatze horretatik askatzen saiatzen gara, eta kasurik onenean, berriz, elikatzen. Autolaguntzako liburuaren antzeko xedea du, azken batean. Baina liburu horietan formula unibertsalak eskaintzen dira, jendeari orokorrean zuzendutakoak, eta gure kasu honetan, berriz, eskari zehatzei erantzuteko formula bereziak eskaintzen ditugu.

Udal-aholkularitza sexologikoa berariazko zerbitzua da, sexologia eta berdintasuna landuko dituen zerbitzu intimoa eta eraginkorra; gertutasuna, leialtasuna eta zorrotasuna oinarritzat hartu eta aholkularitza sexologikoa eskaintzen diegu norbana-koei, bikoteei, familiei, ikastetxei, elkartei, udalari berari, etab.

Jendearentzako (gazteentzako, helduentzako eta nagusientzako) bulegoa da eta hilero ordu batzuk dago zabalik. Bertatik bertarako zerbitzuez gain, telefono eta internet bidezkoak (posta elektronikoa, txata, etab.) ere eskaintzen ditugu. Bulegoan profesional bat edo gehiago dago. Erantzun pertsonalak ematen dizkiegu eskariei: hala beharrez gero, beste udal-zerbitzu batzuetara bideratzen ditugu, tokiko baliabideak elkarrekin lotu eta sustatzen ditugu (berdintasunekoak, hezkuntzakoak, osasun-arlokoak, kulturalak, sozialak, politikoak, etab.), elkarrekin lan egin dezaten eta sexuen arteko ezagutza, errespetua eta elkarbizitza

sustatu dezaten nola harreman intimoetan hala publikoetan.

Hezi, informazioa eman, aholkatu, bitartekari-lanak egin, sexuen arteko sinergia bultzatu... Horiek dira gure helburuak, kontuan izanda bakoitzaren balioak, ezagutza eta trebezia pertsonal eta kolektiboak.

Jakina da, gaur egun, gazteek zein helduek informazio asko daukagula berdintasuna eta sexuaren inguruan, kalean, lagunen artean, internet bidez eta beste hainbeste informazio iturrietatik.

Hala ere, gertatu ohi da, ikusi eta entzuten ditugun gauza denak, guztiz fidagarriak ez izatea. Adibidez, lagun baten ahotik entzun dezakegu "bikotekide bat jelskorra denean maite gaituen seinale da", "nire gorputza aldizkarietan agertzen diren modukoa ez bada, ez naiz erakargarria izango" edota "hilekoa izanda ezin da haurdunaldirik eman". Izan ere, esaldi hauek kalean entzun ditzakegu, baina jelskortasuna eta maitasuna ez dira sinonimoak, batek arrosaren usaina maite du eta

besteak kolorea, eta hilekoa-rekin egonda haurdunaldia gerta daiteke.

Horretaz gain, informazio asko izateak ez du esan nahi ligatzeko orduan lotsarik edo segurtasun faltarik ez agertzea, bikote mailan nola jokatu behar den beti jakitea, desioaren orientazioaren inguruan dudarik ez izatea, bikote bat apurtzean egonezina sortuko ez denik, jakitea zein den antisorgailu egokiena kasu desberdinetan (era

aproposean erabiltzea ere garrantzitsua dela kontuan izanda), eta sortu daitezkeen sexualitate inguruko hainbat galdera, lagunekin eta aldizkari bidez erantzuteko zailak direnak.

Idea hauek guztiak kontuan izanda, aurten martxan jarri da Tolosako Aholkularitza Sexologikoko Zerbitzua, non sexualitate inguruko ideia, duda, zein arazoak planteatu daitezkeen era guztiz anonimoan.

Tolosako aholkularitza sexologikoko zerbitzua

Zerbitzua Tolosako Udalak sustatu du Harremanak Sexologia Elkartearen bidez.

Non? Tolosako Topagunean
Kultur Etxea, Triangulo plaza 1
Helbide elektronikoa: berdinsex@gmail.com

Noiz? Hilero, azken ostegunean

Ordutegia? 17:00etatik 20:00etara

Kontaktua? Maidar Altuna. Sexologoa – Psikologoa.

Nola? Zuzenean azaldu edo hitzordua eskatu posta elektronikoren bidez.

Mikel Labaien (Berastegi) eta Naiara Aginako (Gasteiz) zortzi hilabetez Hego Ameriketatik bizikletaz bidaiatzen aritu ostean Euskal Herrira iritsi berri dira. Ingeniari bikote honek eszedentzia eskatu eta bestelako esperientzia bizitzeari ekin dio 2012. urtean. Bidaian bi hilabete t'erdiko etenaldia egin eta Bolivian boluntariotza lanak egin dituzte, arazo sozialak dituzte haur eta gazteei hezkuntzan laguntza eskainiz. Esperientziaren berri kontatu dute "Ameriketatik" blog-ean eta egun dokumental baten prestaketan ari dira.

Naiara Roldán de Aránguiz



Hego Ameriketako Andeak zortzi hilabetez bisitatzea izan da aurrera eramandako plana. Lehenik, Argentina eta Txile hegoaldeak ezagutu dituzte motxila bizkarrean hartuta. Bigarrenik, Argentina iparraldetik Boliviako

bihotzean dagoen Sucre-raino Andeak bizikletaz zeharkatu dituzte. Eta ondoren, bertako Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) batean boluntariotza lanak burutu ostean Sucre-tik Lima-ra (Peru) bizikleta gainean bidaiatu dute erdialdeko Andetatik barrena.

Zortzi hilabetez Hego Ameriketatik ibili zarete. Nola sortu zen bidaiaren egiteko aukera eta ideia?

Naiara. Ideia berez ez dakigu nondik sortu zen; bidaiatzea beti gustatu izan zaigu, beti izan dugu buruan GKE batean lan egitea, hortaz ideia biak nahasteko aukera gutxika garatzen joan zen...

Mikel. Elkar ezagutu aurretik

ere bakoitzak bere aldetik buruan zuen zerbait zen... Dena nahi genuen: bizikletan ibili, urtebetez bidaiatu eta GKE batean lagundu. Dena batidora batean sartu, nahastu eta honako bidaiara ateratu.

Ibilbidea nola marraztu zuten?

N. Hasierako pausoa lanean nagusiarekin hitz egitea izan zen, berak eszedentzia datak zehaztu zizkigun, GKEarekin harremanetan jarri eta hortik aurrera xehetasunak definitzen joan ginen. Argentinara joan nahi genuen eta horretan ere urtaroez eragina izan zuten, hegaldiaren prezioak, GKEaren lana bidaiaren erdian ko-

katu nahi genuen. Elementu guztiak kontutan hartuta ibilbidea definitu genuen.

M. GKEa lortzea uste baino gehiago kosta zitzaigun. Boliviako aukera lortu genuen eta horren arabera antolatu genuen bidaiara.

TAU Fundazioarekin elkarlanean Boliviara joateko aukera eskuratu zuten. Zer nolako lana burutu duzue bertan?

M. Esan bezala, zaila izan zen GKE bat topatzea. Euskadiko GKE koordinatzailearekin harremanetan jarri eta gure eskaera erakunde guztietara bidali genuen; oso jende gutxi bidaltzen dute hemendik han lanean aritzeko, bidaltzen duten pertsonak gaine-

ra urtebete edo bi urteko ikastaroa egin behar izaten du. Guk ez genuen denborarik, datak zehaztuta zeuden. TAU Fundazioak erantzun zigun eta Boliviako IPTK GKEarekin harremanetan jarri ginen. E-mail batzuk elkartrukatu eta bizikletekin noiz iritsiko ginen abisatu genien. Irtsi bezala lana non egin bazegoen. Proiektu ezberdinetan aritzeko aukera izan genuen.

Heziketan oinarrituta proiektuetan aritu zarete Bolivian. Zer nolako gabeziak topatu dituzue bertan?

N. Bi proiektu ezberdinetan aritu gara. Hango ume askoren gurasoek ez dakite idazten, arazo sozialak pairatzen dituzte eta

umeekin egoteko denborarik ez dute; gehienak herrietatik hirira iritsitakoak dira eta merkatuetan lan egiten dute. Bolivian hezkuntza goizez edo arratsaldez bakarrik ematen da, umeek beraz egun erdia libre daukate, libre duten egun erdi horretan gurasoei laguntzen diete. Ume hauen gurasoak kontziente dira haurrei etxerako lanetan laguntzerik ez dutela, orduan CERPIra (Centro de Recursos Pedagógicos Integrales), gu laguntzaile bezala aritzen ginenera, bidaltzen dituzte. Bertan beste hezkuntza maila bat eskuratu ahal izateko etxerako lanekin laguntzen zaie. Autoestimarekin lan handia egiten da, umeek euren buruengan sinistu eta konfiantza izateko. Denbora

gehiena, umei etxerako lanak egiten laguntzen aritu ginen, 40-50 umerekin.

M. CERPI proiektuaren barruan eskola mugikor bat ere bazegoen. Zenbaitetan eskola mugikorrarekin ateratzen ginen, furgonetara engantxatuta, eta hiriko auzo-pobretan murgiltzen ginen. Bertan umeek libre zuten egun erdi horretan lanean aritzen ziren, etxera dirua eramateko. Kottoak edo zapatak garbitzen zizuten tokietara euren bila joaten ginen. Jokoen bitartez irakasten genien, arazo sozial larriagoak zizutuzten haur hauei. Agresiboak ere baziren eta gogorra zen euren lan egitea.

Bestetik, Sucre inguruan, probintzia osoarentzako unibertsita-

Ameriketatik...

"Familiak lana utzi eta bizikleta hartuta alde egitea ez zuten ulertu"

te antzeko bat zegoen, hemengo lanbide heziketaren antzekoa edo. Hirira, unibertsitatera, joateko baliabiderik ez zituzten gazteak hona etortzen ziren, egoera sozial berezia ere pairatzen zutenak. 4.000 metrotara kokaturik dago eta erizaintza, eraikuntza zibila eta udaletarako administrazioa irakasten da bertan. Gu 17-23 urte bitarteko gazteei informatika klaseak eskaini genizkien.

N. Bertako arazo nagusia ikasleek heziketa maila oso ezberdina dutela da.

Herrian egiten dugun lanarekin moztea zen ideia; ordenagailu aurrean, zortzi orduz egunero egotetik, alde egin nahi genuen.

Familian ia urtebetez bizikletarekin alde egin behar zenutela esaterakoan, zer nolako erantzuna jaso zenuten?

M. Ezkondu, haurdun geundela edo etxe bat erosiko genuela espero zuten denek. Hiru aukeretatik bat espero zuten, behintzat. Lana utzi eta bagindoazela esaten genuenean komeriak izan ziren. Berastegikoa naiz, 1.000

ziguten.

Bidaia burutu ahal izateko finantziazioa zuen aurrezkietatik atera duzue?

M. Bai. Aurrena *sponsor*-en bat bilatzea burutik behintzat pasa zitzaigun, baina azkenean ez ginen saiatu.

N. Lurralde merkeak dira eta oso gutxi gastatzen da, Bolivia eta Peruko hegoaldea, batik bat. 10 euroekin biontzat, eguna pasatzeko, nahiko eta sobera izaten genuen.

duaren bitartez (norbanakoek munduan zehar euren etxeetako "sofak" bidaiariei uztearen mugimendua) lotarako toki asko topatu ditugu, horretan gainera gure *blog*-ak asko lagundu digu. *Couchsurfing*-a jendea eta tokiko kultura ezagutzeko modua zen.

Argentinan zortea izan genuen, *couchsurfing*-aren beharrik ez genuen izan, bizikletekin iristen ginen tokiara, plazan jarri eta jendeak, kuriositatea ezin agoantaturik galdetzeraz gerturazten zen. Orduan etxeetara gonbidatzen gintuzten.

Orain zuen etxeko sofa ere zabalik al duzue mundu osoko bisitariarentzat?

M. Pisua alokatu berri dugu eta beste gela horren bila aritu gara. Aurretik ez genuen nahi, dena esan beharra dago, baina orain arte benefizioa baino ez dugu eskuratu eta jaso duguna bueltatzea dagokigu orain.

Kultura ezberdinak, jendea berria ezagutzeko Ameriketarik zabilatzatela, Berastegiko herritarrekin topo egin duzue...

M. Mendozan, Berastegin jaiotako gizon batekin egon ginen. Gazte zenean soldaduska ez egiteagatik Argentinara alde egin zuen, lanean hasi eta Araiko (Araba) emakume bat ezagutu zuen. "Los Vascos" izeneko garraio enpresa dute, 50 kamioetako flotarekin, Argentina-Txile Andeetako pasoan, haragia eramanez eta platanoak ekartzen dituzte. Harrigarria izan zen. Euskaraz Berastegiko hizkeraz hitz egiten zuen eta gaztelaniaz argentinarrak euskararekin.

Bestetik, Cordoban familiar batzuk genituen. Euren birraitona Elduaingoa zen eta birramona Berobikoa. Hemendik joan, han elkartu eta ezkondu ziren.



M. Gainera ikasleek etxeetan arazoak izaten dituzte; osabak bortxatutako 17 urteko neskatila, joko ote zenien beldur ziren haurrak, guraso alkoholikoak... Milaka istorio entzuten genituen bertan.

Irakasle lanak burutu dituzue Bolivian, zuen lanbideak harremanik al du?

N. Ez, ingeniariak gara biak. Bioi irakastea gustatzen zaigu, unibertsitatean ere aritu izan gara irakasle lanetan eta hori bilatu nahi izan genuen. Euskal

biztanleko herrixka bat, modernizatzen ari gara baina horrelako gauzak entzutea oraindik gogorra da. Krisian egonik, lana utzi eta bizikleta hartuta alde egitea ez zuten ulertzen. Amak, "ze nezezidate duzu?", esaten zidan.

N. Nire etxean izaba modernoa daukat eta laguntza izan nuen... Nire amak, hala ere, ez zuen lana uztearena ulertzen.

M. Arriskua hor zegoen, guk eszedentzia eskatu genuenean bueltan lanean berriro hastea eskatuko genuela bagenekien. Zortea izan eta baiezkora eman

Lo egiteko orduan, kanpin-denda gainean zeneramaten. Baina bestelako ostatuak probatu dituzue?

N. Argentinan kanpinetara joaten ginen, uda zelako, lurralde garestiagotako zelako eta kanpinak oso ondo zeudelako. Bolivian horrela hasi baina etxeetan lo egitea oso merkea zela ikusita, egunero denda muntatzen eta kentzen ez ibiltzeagatik, eta egiten zuen hotza ikusita aukera hau baztertu genuen.

M. Interneten oso ezaguna egin den *couchsurfing* mugimen-

Semeak esaten zuten hementik ezagututa joango ziren, garai hartan ez baitzegoen ondo ikusita emakumea gizonezkoaren atzetik joatea. Nire amona eta hemendik joan zena anai-arrebak ziren, beraz nire lehengusu txiki-txiki-txikiak dira.

Zuek bikotea zarete eta zortzi hilabetez, eguneko 24 orduak elkarrekin eman dituzue. Zer nolako esperientzia izan da?

N. Detalle bat falta da, elkarrekin lan egiten dugul!

M. Oso batera gainera, ordenagailuak parez pare ditugu, lan talde berdinean aritzen gara. Hori askoz gorragoa da...

N. Lan giroan estresa nabaritzen da, baina bidaian estresik ez zegoen.

M. Ondo entrenatuta gindoa zen.

N. Sucren, GKErekin geldi egon ginean eztabaida gehiago izan genituen, ibilbidean zehar bizikletan aritzen ginenean, bizikletak berak independentzia asko ematen zigen, bakoitza bere gauzetan pentsatzen joateko aukera genuen.

Bidaian zehar "Ameriketarik" blog-a ere garatu duzue (<http://ameriketarik.blogspot.com.es/>). Zer eskaini dizue lan horrek?

M. Asko eguneratu dugu, argazki ugari igo ditugu. Hasieran hemengo jendea, gure amei gehien bat, hango berri kontatzeagatik hasi ginen, gero konturatu ginen guretzako ari ginela, diario bezala, oroitzapen gisa. *Couchsurfing*-ean oso baliagarria izan da gure burua aurkezteko, konfiantza eskaintzen zuen eta.

N. Hango jendeak ez du horrenbeste jarraitu, ohitura kontatuak dira, internet ere ez dute edonon eskura.

M. Blog-a gaztelaniaz egin

nahi izan genuen hango jendeak jarraitu ahal izateko, eta orain *blog*-a euskaratzen ari gara.

Bidaiak zertan eragin dizue gehien?

M. Gauzak lasaiago hartzen. Ez dakit hemendik bi hilabetera nerbioak jota egongo naizen, baina momentuz horretan lagundu dit. Inportantzia benetako gauzei ematen. Arazo txiki batetik, handia ez egiten ikasi dugu.

Filosofiarekin bat egiten genuen alde aurretik, bagenekien han gabeziak zeudela... Ez dakit bidaia edo adina den baina ikuspuntua aldatzen da.

N. Aldaketa handiena benetan balio duenari balioa ematea da. Lasaitzen ez dut horrenbeste ikasi, oso urduria naiz...

Anekdota milaka izango dituzue, aukeratu ezazue toki, pertsona edo une bereziren bat.

N. Miguel etorri zait burura. Irakurtzen irakasten ahalegindu nintzen ume bat. Letrak ez zituen ezberdintzen eta marrakien bidez laguntzen nion. Gehien markatu zidana izan zen, oraindik bere argazkia ikusterakoan gaizki pasatzen dut.

M. Anekdota bat kontatuko dut. Bizikletan egun gogorra, nekea pasata, plaza batera iritsi eta buruan lasai egotea besterik ez nuenean, argentinarraren tipa bat gerturatu eta "Che, boludo, ¿de dónde sos?" luzatu zidan. Gure betiko erretorika Euskal Herrikoak ginela eta azalpenak etortzen ziren baina egun horretan nekatuta eta "de España" erantzun nion.

- ¿De qué parte de España?
- Del País Vasco
- Entonces no eres de España.
Entonces eres vasco
- Sí, normalmente eso solemos contar...



- Entonces tienes que contar siempre que eres vasco

Eta tipoak esaten dit argentinarraren azentu itxi batekin "Yo soy vasco". Fernando Arretxea Arbelaitz zuen izena. Arbelaitz sukaldariaren familiaratekoa alde batetik, eta bestetik Elizondoko Iruritakoa.

Anekdota hori da, beti esplikazio guztia ematen dugu eta behin hori esan eta kargua hartu zidan. Bera euskalduna sentitzen zen. Anekdota da gainera, parada egin behar genuen hurrengo herrian *hostel* bat zuela, bazkaltzera gonbidatu zigun eta oso gustura aritu ginen. Zazpi armarietako ikurrina eskatu eta bidali diogu, baina ez dakigu iritsi zaion.

Dokumentala prestatzen zabilatzate, promoa ere ikusgai dago. Lan bikaina nabari daiteke, zer nolako esfortzua suposatu dizue bidaian zehar?

M. Han eromena izan da. Lan asko eman digu. Biok bizikletan agertzen garenean, aurrera joan, kamara tripodetan muntatu, grabatzen utzi, atzera joan, ondortik pasa, berriro jaitsi, desmuntatu... Gustatzen zaigun gauza bat da.

N. Lehenengo GKEarentzat bideoak egin nahi ditugu, euren antolakuntzaren ingurukoak,

proiektuen bat eskaini nahi dutenean bideo hori bidali eta atzuntzia deitu dezaten.

M. Irudi eta musikarekin aurkezpen batzuk egin ditugu, Berastegiko kultur astean, esaterako. Hemendik aurrera baten bat animatzen bada gustura joango gara.

Hurrengo bidaia dagoeneko buruan izango duzue... Noiz, nora?

M. Gustura joan ginen, gustura ibili ginen baina gustura bueltatu gara. Familiarekin eta lagunekin bueltaz disfrutatzen ari gara.

N. Ideiak baditugu Australia adibidez, bizikletaz joateko oso ondo dagoela esan digute...

M. Bidean milaka erorekin topatu gara. Munduan ero gutxi dagoela ematen du baina askorekin egin dugu topo... Afrika ekialdetik, goitik behera zeharkatzea gomendatu digute.

N. Asiara ere bueltatu nahi dugu, udako oportunitatean izan beharko da.

Zuen esperientzia kontatuta, grina eta ilusioa jende askori piztu ko diozue...

M. Berastegi bezalako herri txiki batean, batek egin badu, ondorengotzat errazagoa izango da.

N. Jende guztiari gomendatzen diodan esperientzia da. ☺

Anoetako Dantza Taldea izen eta logo bila

Anoetako Dantza Taldeak 1952. urtean du iturria, geroztik gora behera anitz eman badira ere, azken sei urte hauetan berreskurapen lanetan murgildu da. Historian aurrera egin eta taldeari izaera bermatzeko, izen eta logo berriaren beharrea da. Horregatik, abian jarri da dantza taldearen izena eta logotipoa aukeratzeko lehiaketa

Erredakzioa



Anoetako Dantza Taldeak "aurrera jarraitzea eta talde izaera bermatzea" xedeak ditu egungo helburuen artean. Horretarako, ezinbestekoa ikusi dute egungo partaideek iraganaren errepaso egin, hausnarketa garai sakona abiatu eta etorkizunari erreparatzea. Etorkizuna aintzat hartuta, Ane Jauregik eta Lide Zubeldiak, Anoeta Dantza Taldeko dantza-

riek, abian jarri berri duten lehiaketa aurkeztu dute: Anoetako Dantza Taldeari izena eta logotipoa jartzeko lehiaketa, alegia.

Bilakaera

Anoetako Dantza Taldeko partaideek gogora ekarri bezala, Manuel Odriozola izan zen dantza taldearen lehen pausok eman zituena: "1952. urte aldera,

Dantza-Soka eta Ezpata-Dantza irakasten ziren 14-17 urte bitarteko gaztetxoek". Guztira, bi talde, 20 lagun, aritzen ziren aipatu bi dantza herrikoiak ikasten. Manuel Odriozola 18 urtez jardun zen Anoetako herrian dantzarekiko atxikimendua eskuratzen, 70. hamarkadaren hasiera bitartean. Hala ere, 1960an hasi eta bi urtez Joxe Leon bidelagun izan zuen dantza irakasle gisa. Joxe Leonek dantza suelta -fandango eta arin-arina- irakatsi ziren 6 eta 8 urte bitarteko 16 neska-mutilei.

Egungo arduradunek zehaztu bezala, Anoetako Dantza Taldeak bere lehen etenaldia izan zuen 1970ean. Geldialdiak zazpi urte iraun zuen, orduko eskola publikoko andereñoa zen Tere Mozok ardura hartu zuen arte. Bere ekimenez, egun desagertua dagoen, Tolosako Arkaitz Dantza Taldearekin harremanetan jarri eta irakasleak Anoetara gerturatu zituen. Ekimen honek zortzi

urteko iraupena eta 50 ikasle izan zituen.

Momentu horretatik abiatuta, emakume izen ugari izan ditu Anoetako Dantza Taldeak bere gidaritzan; Mertxe Alleu anoetarra; Miren Beraza eta Izaskun Goikoetxea; Naiara Yurrita anoetarra, Amezketako bi irakasle, Villabonako Oinkari Dantza Taldeko irakasle batzuk... Urte hauetan guztietan bidea luzea eta aldakorra izan da eta egungo zuzendaritzak gogoan du. Hala ere, etorkizunari begira, egoera egonkortze aldera, azken sei urte hauetan lanean dihardute egungo antolatzaileek: "urteak igaro ahala dantza eskolak gorabehera asko izan ditu, baina gaur egun berreskuratzea lortu dugu".



izaten da urtean zehar: Euskal Jaiak, San Joan bezpera, Gabonak eta ikasturte amaierako "dantza emanaldi handia", zerrrendatzen dute arduradunek.

Dantza taldeak erroa Anoetan izaten jarraitzeko intentzioarekin, egungo taldeak lanean jarraituko du. Eman

beharreko ondorengo pausoa taldearen izena eta logotipoa aukeratzeko izango da. Horretarako, herritarren partaidetza ezinbestekoa izango da: "taldearen izenean jendea parte hartzeri animatu nahi dugu, beraien irudimena dantzan jar dezaten!".

Izen eta logotipo lehiaketa, afaria jokoan

Anoetako Dantza Eskolak izen berezirik ez du. Hori dela eta, taldea ordezkatzeko duen izen eta logotipo egokiak aukeratzeko lehiaketa antolatzea erabaki du. Saridunak Hernialdeko Elketa jabetxean bi lagunentzako afaria eskuratuko du. Horretarako, lanak azaroaren 19tik 30era bitartean aurkeztu beharko dira Anoetako Udaletxean, liburutegian edo anoetakodantzataldea@gmail.com helbide elektronikoan.


Lehiaketa pertsona fisikoei zuzendurik dago, enpresek ez dute lehiatzeko aukerarik izango. Lanak originalak izateaz gain, Anoeta herriarekin eta dantzarekin zerikusia izango dute. Izenari dagokionez, proposamenaren zergatia ere biltzen duen azalpen laburra erantsiko da.

Eta logotipoari dagokionez, paper euskarrian (10 x10 zm. gehienez) nahiz euskarri digitalean (jpg formatuan) aurkeztu daiteke. Lehiakideak gehienez bi lan aurkezteko aukera izango du eta izena bakarrik edo logotipoa bakarrik aurkezteko posible da.

Egungo egoera

Izan ere, Alurr Dantza Taldeko irakasleekin lanean arituz, Anoetako Mikelasagasti auditorioan entseguetarako gunea bilakatu dute egun taldea osatzen duten 72 dantzariak, gazte zein heldu. Irakasle lanetan Alurr Dantza Taldeko sei irakasle jarduten dira, haietariko bost anoetarrak direla.

Entseguek inguruko Dantzari Txiki Egunean, zein Anoetako Dantzari Txiki Egunean parte hartzeko aukera eskaintzen dute. Anoetan bertan ere, dantzarien ikuskizunak gozatzeko aukera bat baino gehiago



Gozotegia Okindegia


ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

hitzorduak

Azaroaren 16tik 30era bitarteko

irakurri entzun ikusi



Idazten ari dela idazten duen idazlea
Iban Zaldúa

X idazlea idazten ari da. Eleberrri bat; ohi duen bezala, luma estilografikoaz, paperean. Eta Xk, idazten ari den pasarte, beste idazle bat deskribatzen du, Y, hura ere idazten ari dela, *nouvelle* bat: Olivetti baten aurrean dago, teklak jo eta jo. Eta Yren *nouvelle*an beste idazle bat da protagonista, Z, eta hura ere idazten ari da, ordenagailu eramangarri batean, ipuin bat. Eta ipuinean, irakurtzen ari zaren honetan hain zuzen, bat-bateko iktus batek jotzen du X idazlea, eta hil egiten du.

Ur Edera Kirats Infituan Bizardunak



Bizardunak taldearen hirugarren diskoak (Ur ederra kirats infituan) folk progresiboa zelta kutsuarekin nahastu du, rocka alde batera utzi gabe. Testuetan Euskal Herriko historia politikoa eta kritika soziala ageri dira. Konpromisoa eta jaia uztarturik.

Baztan Iñaki Elizalde



2011ko udazkenean errodaje talde batek bidaia egin du Baztan bailara ezkutara XVII. mendearen hasieran izandako gertakari ilun batzuei buruzko filma bat egiteko. Errodajea burutu eta bertako barrideekin bitartean hamar mende beranduago bailarako bizitzan irauten duen arraza-diskriminazioa aurkituko dute.

Antzerkia

Ticket. Clownik. Azaroak 16, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30
Pailaztana. Neskeraz. Azaroak 23, ostirala. Tolosa, Kultur Etxea. 22.30

Haurrak

Istoriogileak. Azaroak 16, 22 eta 30, ostiralak. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 17.30-19.00. Jolasen bidez istorioak sortzen eta eraikitzen ikasteko tailerra. Doakoa. Izena emateko 943697462 telefonora deitu.
Ipuin txokoa, gurasoak ere ipuin kontari! Azaroak 23, ostirala. 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00

Udazkenean Kultura. Alegia

Garai bateko Alegia II Jaialdiaren proiektzioa. Azaroak 16, ostirala (18.30-20.30) eta azaroak 17, larunbata (11.00-12.30). Alegia, Kultur Etxea. Herriko argazkilaria

Ez dut zigortu nahi. Azaroak 20, asteartea. Alegia, Kultur Etxea. 18.00

Neskeraz. Intujai Teatro. Helduentzako antzerkia. Emakumeenganako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna. Azaroak 25, igandea. Alegia, Kultur Etxea. 19.00

Ipuin kontaketa. Eñaut Gorbea. Azaroak 26, astelehena. Alegia, Kultur Etxea. 17.00

Azpeitiako esperientzia euskara

eta euskal kulturaren aldeko lanean. Alegiarentzako estrategia baten bila. Enekoitz Esnaolaren eskutik. Azaroak 28, asteazkena. Alegia, Kultur Etxea. 19.30

Kulturaldia. Ikaztegieta

Sua filmaren proiektzioa. "Eneko Haritzaren lagunak" elkarrearen eskutik. Azaroak 16, ostirala. Ikaztegieta, udaletxe azpiko lokala. 22.00
Herri krosa. Azaroak 17, larunbata. Ikaztegieta. 16.30
4 anai umezurtzak. Umeentzako txotxongiloak. Azaroak 23, ostirala. Ikaztegieta, udaletxe azpiko lokala. 17.30
DBHko ikasleen jaialdia. Bigarren eskuko azoka, argazki zaharren erakusketa, taloak, gaztainak... Azaroak 25, igandea. Ikaztegieta, plaza. 12.00

Denboraren Bankua

Emakumeen Denbora Banku taldeen arteko "Egun Pasa" topaketa. Azaroak 17, larunbata. Denbora Bankuaren esperientzia zuzenean ezagutzeko aukera, trikimanifa, herri bazkaria, gogoeta eta ekintzailtza lantegiak, horma-irudi kolektiboa eta La Furiaren kontzertua.

Tolosako Babarrunaren Astea

Turismo Esperientzia. Azaroak

18, larunbata. Tolosa, Tolosako Babarrunaren Elkartea. 10.30-15.30. Tolosako Babarrunaren elkartean, babarruna nola sailkatu eta aletzen duten ikusi eta Tolosako Lurlan-Bristot dendan babarrunen dastaketa. Norberak erein eta jasotako babarrunak etxera eramateko aukera. Helduak 20 euro, haurrak 10 euro. 943 697413, tour@tolosaldea.net, Sta. Maria plaza, 1 (Tolosa).

Tolosako Babarruna. Azaroak 17 eta 18, ostirala eta larunbata. Tolosa, Zerkausia eta Triangulo Plaza. XXV. Tolosako Babarrunaren Produktoreen Lehiaketa eta Azoka Berezia eta Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa eta bazkari herrikoa. "Txapela nork hobeto jantzi" lehiaketa. Azaroak 17, larunbata. Tolosa, Txinparta Elkartea. Izena emateko: 699169243 edo 650499904 eta jbaranzabe@hotmail.com

Kontzertuak

Nuevo Catecismo Catolico eta Astrozombis. Azaroak 17, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30
Mikel Markez eta Erramun Martikorena. Azaroak 23, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30
Euritan. Azaroak 24, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Hitzaldia

Atzeritartasun legeari buruzko taldeko informazio saioak. Azaroak 20, asteartea. Tolosa, Kultur Etxea. 18.00

Tolosaldeko baliabideak ezagutu. Azaroak 27, asteartea. Izena ematea: Tolosaldea garatzen, 943654501, inmigrazioa@tolosaldea.net. Tolo-

sa, Kultur Etxea. 10.00
Zazpi ebidentzia birjaitzarako. Xabier Amurizaren "Zazpi ebidentzia birjaitzarako" liburuaren aurkezpena. Euskararen eguneko egitarauaren barruan. Azaroak 29, osteguna. Tolosa, udaletxeko batzar aretoa. 19.30

Santa Zezilia

Santa Zezilia eguneko erronda. Ibarra parrokia-ko koruak eskainita. Azaroak 22, osteguna. Ibarra, herriaren zehar. 19.00

Zinea

Gartxot. Azaroak 22, osteguna. Tolosa, Bonberenea. 19.00
Barrura begiratzeko leihoak. Azaroak 30, ostirala. Alegia, batzar aretoa. 22.00

Kilometroak 2013

Kilometroak 2013ren aurkezpena. Azaroak 23, ostirala. Tolosa, Leidor.

Tolosa Kantari

Tolosa Kantari. Azaroak 24, larunbata. Tolosa. Agirre doktorearen plaza (Tontokale). 12.00

Kz Gunea

Bidegoian. Azaroak 28, asteazkena. 16.00-20.00

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Txirbil harroketa bidezko prozesuen mekanizazioa (Fresatzeko makina)	2012.11.19	80
Berokuntza instalazioetan energia berriztagarriak (Geotermia, aerotermia, biomasa, eguzki termikoa...)	2012.11.19	30
Rutilo elektrodo bidezko soldaketa (euskaraz)	2012.11.26	90
Kalefakzio eta Klimatizazio instalazioak	2012.11.26	40
Klimatizazio instalazioen erregulazio automatikoak (Termostatoak, Presostatoa...)	2012.12.10	20
Kalkulu orrien aplikazio informatikoak (Oinarriko Excel)	2013.01.07	50

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 16
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa
Larunbata, 17
Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa
Igandea, 18
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa
Astelehena, 19
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa
Asteartea, 20
Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Asteazkena, 21
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa
Osteguna, 22
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra
Ostirala, 23
Olarrea I.
(korreo kalea 2)
Tolosa
Larunbata, 24
Olarrea I.
(korreo kalea 2)
Tolosa
Igandea, 25
Azpiroz L.
(Amarotz, 9)
Tolosa

Astelehena, 26
Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa
Asteartea, 27
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa
Asteazkena, 28
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa
Osteguna, 29
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa
Ostirala, 30
Iturrioz, I
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Albartzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Alto	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	943 672 932
Medikua	geriatrikoa	943 675 858
Baliarrain	Udalzaingoa	943 650 016
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Ur zerbitzuak (aberiak)	943 670 325
Medikua	lurremendi egoitza	112
Bidegoian	Larrialdia, Suhiltzaileak	943 672 536
Medikua	DYA	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	Gurutze Gorria	943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	943 682 077
Osasun zentroa	Medikua	943 655 595
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 650 931
San Esteban, hitzordua	Orexa	943 006 800
	Medikua	943 682 228

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ZUEN TZART
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Bana edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 6 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitatezko ekipamenduak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Furgoneta Volkswagen T4 modelo, multivan salgai. 251.000 km. Egoera onean. Kanbio automatikoa. 102 zaldi. 10.000 euro. 609481124

Horoskopoa

Azaroaren 16tik 30era arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Harremanetarako garai oparoa da. Zain zeunden unea iritsiko da. Harreman berri batean murgilduz gero, ez ezazu presarik izan. Helburuak errealitate bihurtzeko norberarengan apustua luzatzea bezalakorik ez dago.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Konpromiso handiagoko ardurak hartuko dituzu zure gain. Lanean erakutsiko duzun kreatibitateak zure izaera egonkortzeko balioko dizu. Lan eta osasun arazoengan fokatuiko duzu atentzioa.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Zure benetako izaera erakusteko garaian murgildurik zaude. Proposamen interesgarria jasoko duzu. Aske sentitzen zara eta gauza berriak egiteko gogoz. Irudimena landuko duzu eta horrek zure autoestimuan eragina izango du.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Familia giroa lasaituko da, une gozagarri bezalako egongo da gainera. Aldaketak datoz eta horrek ikuspuntu berria eskainiko dizu. Guztiak hobera egingo du, iraganeko arazoak desagertuko dira. Egunerokotasunetik ihes egiteko esperientziak.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Bizitzak eskaintzen dizkizun gauza txiki horietaz disfrutatzen zaren gauza. Bidaiek egiteko aukera, jende berria ezagutzeko aukera. Zure burua ezagutzeko bidea ere eskainiko dizkizute honako bidaiek.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Independentziak jokatu beharko zenuke, zure erabakiak hartuz. Ekonomikoki aldaketetan murgilduko zara, zure erabakia izango da. Arriskurako duzun joera sekula baino handiagoa da.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Sentimenduak argitzeko aukera izango duzu. Garrantzitsuak diren kontuei buruz negoziatzeko orduan zortea zure alde egongo da. Denbora gutxira usta jasotzeko moduan izango zara.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Iragan sentimentaleko auziak konpontzeko unea. Helburu berriak zehaztu aldera, aurretik hainbat kontu konpondu beharko dituzu. Gertakariak aurreratu nahi izateak ez dizu onik ekarriko.



sagitaris

Azaroak 23-Abenduak 21
Harremana sakontzeko unea. Adiskideek zer esan handia izango dute. Iraganeko jokaera erabat aldatu eta beste jarrerara batekin ekingo diezu arazoei. Aisialdiak aspaldi ez bezala gozatuiko duzu.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Lan munduarekin harremana duen orok intentsitate handiagoa izango du. Zorteak zein kreatibitateak ate bat baino gehiago irekiko dizkizute. Aurrera egingo duzu, esfortzuak gain baita zure talentuari esker ere.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Pentsamendu irekiera jasango duzu, horrek askatasuna ere ekarriko dizu. Plan ezberdinak egonkortuko dira. Honela, bidaiek, kulturak eta kreatibitateak erabateko garrantzia hartuko dute.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Zure inkontzientek zer nolako lana burutzen duen jabetzeko unea iritsi zaizu. Kanpora begira egindakoak, barrura begirakoen zuzeneko eragina izango du. Garai bateko konpromisoei aurre egin beharko diezu.



Publierreportaia

Tolosako Babarruna

Tolosako Babarruna Elkarteak 1994an eratu eta gaur egun 58 bazkide-ekoizle ditu. 28 hektarean "Tolosako Babarruna" produktuaren 35.000 kg. jasotzen dira. Tolosako Babarruna Eusko Label kalitatearen ziurtagiriak berretsitako dago gainera.

Tolosako Babarruna Elkartearen eta elkarte bera osatzen duten ekoizleen eginbeharra ezinbestekoa da: landarea jaiotzen hasten den une beretik zaintzen dute; jatorriaren bermea eta kalitatea ziurtatzea dute helburu, eta horretarako gogor lan egiten dute; hoberenak bakarrik aukeratzen dituzte eta horrenbestez, prozesu horren guztiaren emaitza da sukalde ezberdinetara iristen den Tolosako Babarruna.

Ezaugarriak eta Laborantza

Eusko Label ziurtagiria jasotzeko kalitate "Bikainekoak" edo "Oso Onekoak" izan behar dira. Ekoizpen-ingurua EAeko zona atlantikoak da, benetako ebapotranspirazioa ematen den gunea, eta beti ere ingurumena errespetatzen duen ekoizpen-sistema erabiltzen da Tolosako Babarruna landu ahal izateko.

Urteko lekadun bat da, sustrai-sistema oso gartua du, eta zurtoin mehe eta luzeak ditu abarreztatzen. Tolosako Babarruna ohiko



eran egiten da, behartu gabe eta eskulan ugari erabiliz. Ereitea maiatza erdialdean eskuz burutzen da, izotzen arriskua igaro ondoren. Tutoreak, landarearen euskarri eta gidak izango direnak, lehen hosto trifoliatuak ateratzekoan jartzen dira. Ondoren, jorratzen da, lurra aireztatu eta belar txarrei aurre egin asmoz.

Babarrun-biltzea eskuz eta aldikiz egiten da, lekak heltzen diren heinean, goi mailako kalitatea bermatuz. Bildu ondoren, baserrietako ganbaretan zabaltzen dira, aleek %14ko hezetasuna lortu arte.

Merkaturatzeko orduan kilo erdi, kilo bateko eta hiru kiloko ontzi unitarioetan merkaturatzen da, behar bezala zigilatuta eta etiketatuta jatorria eta kalitatea ziurtatzeko. Horretaz gain, 25 kiloko zakuetan erosteko aukera dute ostalaritzako profesionalak.

Tolosako Babarruna Elkarteak

Elkartearen helburu nagusiak bertako babarruna defendatzea, ezagutaraztea eta bereiztea dira, erruz sartzen den kanpoko babarrunari aurre egiteko. Azken finean, kontsumitzaileari jatorriaren eta kalitatearen ziurtagiria duen produktua eskaintzea, eta nekazariari, berriz, ordain egokia eta duina ematea.

Tolosako Babarruna Elkarteak
San Esteban, 29 A. 20400 Tolosa
T. 943 65 02 53
www.tolosakobabarruna.com



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



Pol. Amaroiz 10, beheia - Tel. 943 671 856 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Geltoki
fisioterapia zentroa

Eider Amondarain Larrinaga Kol. 949
Naiara Olaetxea Amonariz Kol. 727

943.24.96.92

Batxiller Zaldibia 12, beheia. Tolosa
www.geltokifisioterapia.com

Ana Sainz Malkorra
Mediku Estomatologoa
Coleg. 20000437

H O R T Z K L I N I K A

Laskorain, 12 - 1ºC • Tolosa 20400 • Tel. 943 65 18 80




Juan Carlos Etxebeste
Podologoa

Igarondo, 9-1 Ezk • Tel.: 943 672 780 • www.podologostolosa.com

Oin Podologia Klinika
Profesionalitatea eta esperientzia, 30
urte baino gehiagoko lana.

PAUSOKA 
Podologia zentroa
CIF Zbk: e-20802674

IURRE Auzoa 10, BEHEA • 20400 TOLOSA • Telf. 943 117 801



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com